



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

TRATAMENDU-ERAGILEAREN KONTRATUA

Arrasaten, 2016ko otsailaren 10ean.

ELKARTURIK

Alde batetik, UNAI ELKORO OIANGUREN jauna, Aretxabaletako Udaleko alkatea.

Bestetik, UNAI ELKORO OIANGUREN jauna, Debagoieneko Mankomunitateko lehendakaria.

ESKU HARTZEN DUTE

Biek beren karguei dagozkien eginkizunak betez, dokumentu hau egiteko gaitasun osoa aitortzen diotelarik elkarri, eta

ADIERAZTEN DUTE

I.- Debagoieneko Mankomunitateak etxeko hondakinak biltzeko zerbitzua ematen duela Aretxabaletako udalerrian.

II.- Zerbitzu hori emateko, Aretxabaletako Udalak zerbitzu horren erabiltzaileen datu pertsonaletara sarbidea ematen diola Mankomunitateari, berau izanik tratamenduaren arduraduna.

III.- Azaldutakoaren arabera, eta 15/1999 Lege Organikoak —abenduarien 13koa, Datu Pertsonalak Babestekoa— 12. artikuluan ezartzen duena betez, Mankomunitateak egin beharreko datu pertsonalen atzipen eta tratamenduaren arauketa erabakitzen dute bi alderdiek ondorengo klausulen arabera.



KLAUSULAK

LEHENA.- Aretxabaletako Udalak Debagoieneko Mankomunitateari (aurrerantzean tratamendu-eragilea) ondorengo datuak emango dizkio Aretxabaletako udalerriko etxe-hondakinak biltzeko zerbitzuko erabiltzaileei dagozkienak:

- Zergapekoaren zenbaki bakarra.
- NAN
- Izen-abizenak.
- Zergaren helbidea.
- Tasaren tarifa.
- Hobaria.
- Salbuespena.
- Zergan alta eta baja data.

Tratamendu-eragileak hondakin organiko eta errefusaren edukiontzietan botatako hondakinen kontrola eta jarraipena egiteko helburuaz tratatuko ditu datu horiek, isurtze desegokiak detektatzeko eta, isurketa horien arduradunei ohartaraziz, detektaturiko akats horiek konpondu ahal izateko; baita ere zergapekoen kontrola eramateko Udalek hobariak aitortu dizkietenean autokonposta edo konpost komunitarioa egiteagatik, horiek hondakin organikoen edukiontzietara sarbiderik izan ez dezaten, eta oro har etxeko hondakinak biltzeko zerbitzua kudeatzeko, hauxe baita bi Administrazioak lotzen dituen harremanean sartzen den tratamenduaren norainokoa.

BIGARRENA.- Tratamendu-eragilea datu horietaz baliatzeak ez du, beraz, datuen lagapena esan nahi LOPDren 11. artikuluan ezarritako kontzeptuaren arabera.

HIRUGARRENA.- Bi Administrazioen arteko datu-transferentzia posta elektronikoaren bidez egiten da.

LAUGARRENA.- Aretxabaletako Udalaren aginduen arabera jasotako datuak soilik erabiliko ditu tratamendu-eragileak eta lehenengo klausulan aipaturiko helbururako bakarrik. Harremanaren indarraldia mugagabea izango da.

BOSGARRENA.- Aretxabaletako Udalak tratamendu-eragileari transferitutako datuak oinarritzko segurtasun-mailakotzat jotzen dira, indarrean den abenduaren 13ko 1720/2007 ED-ren xedapenen arabera; ED horrek 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestekoa, garatzen duen Erregelamendua onartzen du.





Tratamendu-eragilea beharturik dago datu horien tratamenduan LOPDren 9. artikuluko beharrezko neurri teknikoak eta antolaketazkoak aplikatzera, aipaturiko Erregelamenduak gaur egun garatu eta ezartzen dituenak adierazitako segurtasun mailarako. Bereziki, transferitutako datuen segurtasuna eta osotasuna bermatu behar ditu eta neurriak hartu baimendu gabeko inork atzitu ez ditzan, ez suntsitu eta ez galdu.

SEIGARRENA.- Tratamendu-eragileak lanbide-sekretua eta isilpekotasuna beteko ditu Aretxabaletako Udaletik jasotzen dituen datu guztiekiko, eta horiek hirugarren bati ez jakinarazteko betebeharra du, ezta horiek kontserbatzeko ere, eta betebeharr hau bien arteko harremana amaitu eta gero ere mantendu egingo da.

Aretxabaletako Udalak, fitxategiaren arduradunak, baimena ematen dio Debagoieneko Mankomunitateari, tratamendu-eragileari, datu hauek DORLET, S.A. enpresari jakinarazteko; enpresa hau Mankomunitateak kontratatu du Mankomunitateko udalerrietan hondakinen ekarpen-gune, larrialdi-gune eta miniguneetara sarbideak kontrolatzeko beharrezko elementuak (hardware eta software) eman eta jar ditzan; baita PLASTIC OMNIUM SISTEMAS URBANOS, S.A. enpresari ere, Mankomunitateak kontratatua hainbat edukieratako edukiontziak jar ditzan etxeetako hondakin mota ezberdinak batzeko, aldi berean honek DORLET, S.A. enpresa azpikontratatu duenak hondakin organikoa eta errefusa batzeko albo-kargako edukiontzietan sarbide-kontrola gauzatzeko beharrezko elementuak (hardware eta software) eman eta jar ditzan.

Fitxategiaren arduradunaren erantzukizunpeko fitxategi edo datu pertsonalak erabiliz zerbitzua emateko edo/eta tratamendu-mandataua gauzatzeko akordioa izenpetu behar dute tratamendu-eragileak eta azpikontratistek. Kontratu horren kopia bat, LOPDen ezarritako baldintzak bete beharko dituelarik, dokumentu honi erantsi beharko zaio.

Tratamendu-eragileak ezingo dio beste hirugarren bati transferitu, kontratu honetan baimendutako azpikontratistei izan ezik, fitxategiaren arduradunaren Fitxategiko datuak, eta datu horiek hirugarrengei transferitzea eskatuko duen beste azpikontrataziorik ere ezingo du egin, ezta fitxategiaren arduradunaren fitxategien tratamendurik beste enpresa batzuekin inplikatu duen inolako prestaziorik azpikontratatu ere, salbu Mankomunitatearen eta Udalaren artean berariazko akordio eskuesle edo baimen-emailea dagoenean horretarakoxe izenpetua.

Udalak Mankomunitateari emandako eta klausula honetan arauturiko baimena ezingo da luzatu aipaturikoez bestelako jardueretara, eta inola ere ez du ekarriko Mankomunitateak Udalaren ordezkari, agente edo mandatari gisa jardun ahal izatea, eta bere egiteek edo ez-egiteek ez dute inolako loturarik sortuko Udal hirugarrenen aurrean behartzeko modurik.





ZAIZPIGARRENA.- Tratamendu-eragilea beharturik dago trataturiko datuen kopia ematera, horiek aldatu edo ezereztera, Aretxabaletako Udalak esaten dion epeetan eta, nolanahi ere, herritarraren eskubideak betetzeko LOPDek ezin eztabaidatzeko eran ezarritako epeetan.

ZORTZIGARRENA.- Zerbitzu-ematea egin ondoren eta bi Administrazioen arteko harremana amaituta, tratamendu-eragilea beharturik dago transferitutako datuak itzultza eta horiei buruz bere esku dituen erregistro guztiak suntsitzera, baita datu horietakoren bat daukaten euskarri edo dokumentuak suntsitzera ere.

Suntsitze-behar honen salbuespena izango da datu horiek erreklamazio edo auzietan nahasturik egotea, kasu honetan mantendu ahal izango baitira dagozkien akzio zehatz horiek preskribitu arte.

BEDERATZIGARRENA.- Aretxabaletako Udala salbuetsita geratuko da tratamendu-eragileak kontratu honetako klausulak eta betebeharrak ez betetzetik sortzen diren erantzukizun guztietatik, eta zehazki kasu hauetan:

- Tratamendu-eragileak datu pertsonalak hemen hitzarturikoez bestelako helburuetarako erabiltzen dituenean.
- Transferituriko datuei buruz dagokion sekretu-betebeharra urratzen duenean.
- Bosgarren klausulan dauden segurtasun-neurriak betetzen ez dituenean.

Kasu horietan guztietan eta, oro har, dokumentu honetako edozein klausula ez betetzeagatik, tratamendu-eragilea erantzule izango da, eta egin dituen arau-hausteengatik pertsonalki erantzun beharko du, baita ere Datuak Babesteko Agentziaren aurrean interesatuek jarritako edozein erreklamaziorengatik, eta, hala badagokio, doakionari egokituko litzaiokeen kalte-ordainagatik, baldin eta honek, LOPDren 19. artikulua araber, erantzukizun-akzioa egikaritu badu bere ondasun edo eskubideetan pairatutako kalteagatik.

Eta aurreko guztiarekiko adostasunaren adierazgarri, bi alderdiek bi ale izenpetzen dituzte idazpuruan aipaturiko lekuan eta datan.

Fitxategiaren arduraduna
ARETXABALETAKO UDALA

Izpta.: UNAI ELKORO OIANGUREN

Tratamendu-eragilea
DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Izpta.: UNAI ELKORO OIANGUREN